


Euskadiko gazte elkartekideen kopurua beherantz etengabe, % 28an kokatu arte

Elkartegintza biziago dago mutilengan. Kirol elkarteak dira Euskadiko gazteek gehienbat hautatzen dituztenak




Euskadiko gazteek elkarteren batean duten partaidetzari buruz Gazteen Euskal Behatokiak berriki egin duen iritzizundaketa batean (Gazteen joerak 2006 txostena), datuek aditzera ematen dute gazteen % 28 elkarteren bateko kide direla. Datu horien arabera, Euskadiko Gazteak serieko inkestetan bildutakoekin alderatuta, Euskadiko gazteek elkarte jardueretan duten partaidetza 2004tik hona % 7 jaitsi dela antzeman daiteke, eta 2000tik hona, % 14.




Iturria: Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Gazteen joerak 2006. Gazteen Euskal Behatokia

Elkarteetako kide izateari dagokionez, mutilen proportzioa altuagoa da (% 33) neskena baino (% 22). Mutilek elkarteekin duten lotura estuago hori azterturiko hiru aldietan antzeman daiteke.



Iturria: Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Gazteen joerak 2006. Gazteen Euskal Behatokia

2000 eta 2004 aldietan ikus daitekeenez, 15 eta 19 urte bitartekoen artean joera handiagoa dago elkartekide izateko, eta beranduago partaidetza maila hori jaitsiz doa. Hala eta guztiz ere, joera hori aldatuz joan daiteke, 2006ko datuek diotenez, partaidetza maila antzekoa baita hiru adin-taldeetan.



Iturria: Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Gazteen joerak 2006. Gazteen Euskal Behatokia

Elkarrekin elkarrekin diren gazteengan ohikoenak diren elkarrekin moten azterketa 2004an oinarritzen da, informazio iturri dugun azkeneko urtea, izan ere. Datu horien arabera, gehienbat hautatzen direnak kirol elkarrekin (% 15) dira. Gertueneko beste aukerak nahiko urrun geratzen dira, alegia: kultura edo arte elkarrekin (% 5) eta txokoak edo olgetarako elkarrekin (% 4).

2004an gazte elkartekide ohien elkarte motei buruz bildu ziren datuen arabera, jaitsierarik nabarmenenak eskaut taldeetan eta, oro har, gazte klubetan igarri dira (azken hauetan lau elkartekidetik hiruk baino gehiagok elkartea utzi dute). Elkartekideak galdu dituzte baita, baina hein txikiagoan, kirol elkarteek, ikasleen elkarteek eta mendizaleen elkarteek.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen elkarte mota bakoitzarekin duten harremana. Portzentajeak. EAE. 2004						
	Gaur egun kidea da	Kidea izan da, baina gaur egun ez	Ez da kidea, baina lankidetzan aritzen da	Ez da inoiz kidea izan eta ez da inoiz lankidetzan ari izan	Ed/Ee	Guztira %
Kirol eta kirolak	15	20	1	64	0	100
Kulturalak edo artistikoak	5	6	1	88	0	100
Txokoak edo olgetarakoak (lagunarteak, konpartsak, blusak...)	4	4	0	91	0	100
Euskararen defentsarakoak	3	2	3	91	0	100
Musika bandak, musika taldeak	3	5	0	92	0	100
Eskaut taldeak, gazte klubak	3	11	0	85	0	100
Politikoak	2	1	1	97	0	100
Ikasleenak	2	5	1	92	0	100
Ongintzar eta laguntzarakoak (gaigabetasunekin, osasunarekin, etorkinekin eta abarrekin zerikusia dutenak)	2	1	1	96	0	100
Erligiosoak	2	3	1	95	0	100
Sindikalak	2	1	0	97	0	100
Mendizaleen talde edo elkarteak	2	5	1	92	0	100
Ekologistak	1	1	1	97	0	100
Bakearen aldekoak edo antimilitaristak	1	1	1	97	0	100
Profesionalak	1	0	0	98	0	100
Hirugarren Munduaren garapenerako laguntzarakoak	1	2	2	94	0	100
Emakumeekin lotura dutenak	0	0	1	98	0	100
Giza eskubideen aldekoak	0	0	1	98	0	100
Bestelako elkarteak	1	0	0	93	6	100

Iturria: Euskadiko gazteak 2004. Gazteen Euskal Behatokia

Erlazionatutako datu-etaulak:

1. [taula](#) (pdf, 21 kb)
2. [taula](#) (pdf, 19 kb)
3. [taula](#) (pdf, 22 kb)

Erlazionatutako dokumentuak:

- [Euskadiko gazteak 2000](#) (pdf, 1.712 kb)
[Euskadiko gazteak 2004](#) (pdf, 1.624 kb)

Erlazionatutako estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiko estatistikak](#)

[Gazteen Euskal Behatokiko ikerketa soziologikoak](#)